# A U R K E Z P E N A

"Altza, hautsa kenduz" liburuak, nolabait, egungo Altzaren ispilu dira: pertsona desberdin askoren metaketa. Desberdinak adinean eta esperientzietan, intreresetan eta zaletasunetan, ideietan eta pentsamoldeetan. Guztiek daukate tokia Altzan. Guztiak dauka tokia *Hautsa Kenduz*-en. Aurrekoen ildotik, 5. zenbaki hau ekarpen desberdinez beteta datorkigu.

Eta aurrekoetan bezala, artikulu bakoitzaren jatorrizko hizkuntza errespetatu egin da eta, berezko laburpena ez duenean, bukaeran aurkezpen txiki bat erantsi diogu, gazteleraz edo euskaraz.

Altzako baserrietatik abiatu da J. GARRIDO liburu honen azala egiteko. 2.000ko mugan doa galdera: XX.a izango al da Altzako baserrien eraikuntza ezagutuko duen azken mendea?

Literaturatik barne-gogoetara doan bidean hauek dira aurkituko ditugun egile eta artikuluak:

- J. GONZÁLEZ ANDRÉS, altzatar idazle gaztearen aurkezpen egokia izan daiteke dagoeneko irabaziak dituen sarien aipamena, bereziki "Tomas Fermin de Arteta" Nazioarteko Narrazio-Lehiaketa (Aoizko "Bilaketa" elkarteak antolatua). Guretzat idatzi duen ipuinak Karlistaden garaira eramango gaitu. J. ARZA da bertan agertzen den marrazkiaren egilea.
- J. M. IRIGOIENek hamaika poema hautatu dizkigu, argitaratu berri den "Hautsa eta Maitemina" liburukoen artean.
- Orain dela 60 urte B. BARANDIARAN, Altzara etorri baino lehen, Itsasondon bizi zen. Gaztetxoaren garaiak eta Santa Marinatarren istorioak paperatzerakoan orduko bizimoduaren berri jaso digu.
- F.J. LASCONATEGUYk ere lehenaldi eta oroimenetarako bidaia egingo du baina Herrerako pertsonaia eta gertakizunetan kokatua.
- Atzera-begirada ere da Aitor GARINek proposatuko diguna baina, berea gertuagoa, hogeitahamaika urtetik atzera, Altzan zehar egindako begirada izango da.
- Ondoren Historiara eta, era eta sakonketa desberdinez, Historia aztertzen eta gerturatzen arduratu direnengana pasako gara.
- Altzako Hoatarren sendiaren nondik norakoak Lizardi baserritik Pollon baserrira eramango gaitu, A. FERMINen eskutik.
- Oriamendiko Borrokan Altzan gertatutakoak eta horien ondorioak aztertzerakoan, M.R. ROQUERO USSÍAk Lehenengo Karlistadaren gaia osatu du.
- Altzako Udaletxearen sorrera izango da A. AGUIRRE SORONDOk aztertuko duen gaia baina etxearen ikuspuntik, alegia, eraikinari dagozkion kontuak azalduz.
- XIX eta XX mendeetan Altza eta Donostiaren artean izan diren anexioak eta desanexioak izan dira M.J. HERNANDEZ DEL CAÑOk aztertu dituenak artikulu sakon honetan.

- 1924an, Altza herriaren independentziari eusteko, Segundo CASARESek -Altzako alkate eta zinegotzi ohia- Altzako Udalari hemen irakurri dezakezuen gutuna idatzi zion.
- "Urumeako Zilegi-mendiak" gisa ezagututako eremuaren barruan "Altza basoa" lurraldea kokatzen da. Horrek Altzarekin dituen lotura historikoak eta bere mugak aztertu ondoren A.M. CALVOk lur horiek ezagutzeko ibilbidearen berri emango digu.
- J. CASTROk, aitak emandako datuetatik abiatuz eta Altzarako hain garrantzitsua izan den Pasaiako Portuaren omenez, Portuko "argazki idatziak" egingo ditu, 1947tik 1950era.
- XV. eta XVI. mendeetara eramango gaitu I. LANDA IJURKOk, Engomez sendiaren jabetzak aztertzera. Horien sal-erosketen berri ematerakoan garaiko Altza eta sendi boteretsuen pentsamoldea ezagutzeko parada ematen digu.
- Hamaika argazkien bidez, 1953-1958 bitartean, Herreran izan ziren danborraden (eta garaiaren) berri izango dugu, J. SERRANOk bildutako lanari esker.

Herrera izango da oraingoan lehenaldiaren eta oraina nahiz geroaren arteko zubia, baina gehiago ere badago, noski:

- I. ZUBIZARRETA GEREDIAGAk Herrerako P.E.R.I.aren (Herrerako Barne Birmoldaketaren Plangintza Berezia) beharra eta nondik-norakoa azalduko dizkigu, historiatik abiatuta biharko beharrei erantzuteko premiarako bidea.
- Ipuin baten moduan E. ARRIETAk arestian aipatutako behar horiei erantzuteko premia azpimarratuko du. Tamalez, errealitatea fikzioa baino gogorragoa da, beti.
- Jaizkibel da oraingoan JOXERRAk proposatuko digun ezagutzeko mendia, Altzatik gertu. Beti bezala, ibilbidea norabide hutsa baino gehiago izango da.
- Bernabé Rodríguez Roncero altzatarraren interesik nagusiena natura da. Naturarekiko interes, grina horren berri ematerakoan L. GARMENDIAK ekologiari tarte bat egin dio gure liburuan.
- Umeengan eta familiaren harremanetan telebistak duen eragina hartu du aztergai A. ALFAROk. Horretarako Altzako San José de Calasanz ikastetxea izan du lagun, bertako guraso, irakasle eta ikasleek emandako datuen bidez.

Azkenik, 5. zenbaki honetan, aurreko lau "Altza, hautsa kenduz" liburuetan jasotako artikulu eta egileen zerrenda ere sartu dugu, Altza hobeto ezagutu nahi dutenentzat lagungarri izan daitekeelakoan. Eta horrek, modu batera edo bestera, *Hautsa kenduz*-en bost aleak prestatzen lagundu duten pertsona guztiei, eskerrak emateko aukera ematen digu: beren emaitzekin aberastu dituztenei (materiala eta informazioa errazterakoan, ideiak eta iritziak ematerakoan, eta abar), diseinatu dituztenei, idatzi dituztenei eta irakurri eta irakurriko dituztenei.

DONOSTIA KULTURA

# P R E S E N T A C I Ó N

Los números de "Altza, hautsa kenduz" son, en cierta manera, un espejo del Altza de hoy: un conglomerado de personas diferentes. Diferentes en edad y vivencias, en intereses y aficiones, en ideas y pensamientos. Todas caben en Altza. Todo cabe en el Hautsa kenduz.

Así, este número 5 viene, como los anteriores, cargado de aportaciones diferentes y, también al igual que en las publicaciones anteriores, se ha respetado la lengua original de cada trabajo al que se le ha añadido una pequeña reseña, en castellano o en euskara, al final del texto.

- J. GARRIDO se ha inspirado en los caseríos para realizar la portada de este libro. En la frontera del 2000, la pregunta casi surge inevitable: será el siglo XX el último que va a conocer la construcción de caseríos en Altza?

Los artículos y autores/as que encontraremos en el camino que va de la literatura a la reflexión personal son:

- La presentación de J. GONZÁLEZ ANDRÉS, joven escritor altzatarra, puede ser nombrar, por ejemplo, la obtención del Primer premio del XXII Certamen de Narrativa Internacional Tomás Fermín de Arteta que organiza la asociación "Bilaketa" de Aoiz. El cuento que ha escrito para nosotros/as nos remontará a la I Guerra Carlista. El autor del dibujo que ilustra este cuento es J. ARZA.
- J.M. IRIGOIEN nos ha escogido once poemas de los publicados en su reciente libro "Hautsa eta Maitemina".
- Hace 60 años, antes de venir a Altza, B. BARANDIARAN vivía en Itsasondo. Al plasmar en el papel sus tiempos de joven y las historias de los santamarinatarras ha recogido la forma de vida de entonces.
- F.J. LASCONATEGUY también ha realizado un viaje al pasado y a sus recuerdos pero centrado en los acontecimientos y personajes de Herrera.
- Lo que nos propondrá A. GARIN también es una mirada al pasado pero, la suya, será una mirada a una Altza más cercana en el tiempo, realizada desde los 31 años.

Después pasaremos a la Historia y a quienes se han encargado de analizarla y acercárnosla, de diversas maneras y con diferente intensidad:

- El recorrido de la familia de los Hoa nos llevará del caserío Lizardi al caserío Pollon, de la mano de A. FERMIN.
- M.R. ROQUERO USSÍA ha completado la Primera Guerra Carlista, analizando concretamente la Batalla de Oriamendi y sus acontecimientos y consecuencias en Altza.
- Los comienzos del Ayuntamiento entendido como espacio o lo que se llamaba "la casa concejil", será el tema que tratará A. AGUIRRE SORONDO.
- M.J. HERNANDEZ DEL CAÑO ha analizado minuciosamente las anexiones y desanexiones entre Altza y San Sebastián, sucedidas durante los siglos XIX y XX.
- En 1924, para reivindicar la independencia de Altza, Segundo CASARES -ex-alcalde y ex-concejal de Altza- escribió al Ayuntamiento de la Villa la carta que podéis leer en este libro.

- Dentro de lo que se conoce como Montes Francos del Urumea se encuentra el territorio denominado Altza Basoa (hoy dentro de los terrenos de Donostia Basoa). Tras analizar las conexiones históricas que este territorio tiene con Altza y sus límites, A.M. CALVO nos presenta una excursión para poder conocerlo.
- J. CASTRO, partiendo de los datos facilitados por su padre y en homenaje al Puerto de Pasajes que ha tenido tanta importancia para el desarrollo de Altza, realiza con la palabra un recorrido casi fotográfico, de 1947 a 1950.
- I. LANDA IJURKO nos llevará a los siglos XV y XVI para analizar las propiedades de la familia Engomez. Al relatar las compra-ventas de las mismas recoge el Altza y el pensamiento de las familias poderosas de la época.
- A través de once fotos, recogidas gracias al trabajo de J. SERRANO conoceremos las tamborradas (y la época) que, entre 1953 y 1958, se realizaron en Herrera.

  Herrera será el tema que, en esta ocasión, construye el puente entre el pasado, el presente y el futuro, pero, por supuesto, hay más:
- Partiendo de la historia hasta llegar a la urgencia actual de responder a las necesidades de mañana, el arquitecto I. ZUBIZARRETA GEREDIAGA encargado de redactar el PERI (Plan Especial de Reforma Interna) de Herrera nos expone la necesidad y los pormenores del mismo.
- Como si de un cuento se tratara E. ARRIETA subraya la urgencia de dar respuesta a esas necesidades. Por desgracia, la realidad siempre supera la ficción.
- Jaizkibel es el monte, cercano a Altza, que nos propone conocer JOXERRA. Como en anteriores ocasiones su recorrido engloba mucha más información que la simple orientación por los caminos.
- Con el relato de la pasión por la naturaleza del altzatarra Bernabé Rodríguez Roncero L. GARMENDIA le ha hecho a la ecología un hueco en este libro.
- La influencia de la televisión en la infancia y en las relaciones familiares es el tema analizado por A. ALFARO. Para ello ha contado con la colaboración de padres/madres, profesorado y alumnado del Colegio San José de Calasanz de Altza.

Por último, este número V de la colección Hautsa kenduz recoge un índice de todos los artículos, y sus autores/as, publicados en los números anteriores que esperamos será de ayuda para quienes quieran conocer Altza un poco mejor. Y nos sirve para dar las gracias a todas las personas que de una u otra manera han colaborado en la elaboración de estos cinco números del *Hautsa kenduz*: a quienes lo han enriquecido con sus aportaciones (facilitando información y material, dando ideas y opiniones, etc.), a quienes lo han diseñado, a quienes lo han escrito y a quienes lo han leído y lo leerán.

DONOSTIA KULTURA